

HIRIBILDU

Marik Donostiako Mikel lehengusuaren gutuna jasoko du, Durangora datorrela eta uria ezagutzeko bisita gidatua prestatu diezaion eskatuz. Bada, geuk ere gauza bera egin beharko dugu geure ikaskideekin. Taldeka, bisita gidatua antolatu eta horretarako informazioa biltzen duen eskuorria prestatu beharko dugu.

Seguru ez dela gu bezain gida aditurik egongo!

<i>Mari eta konpainia</i>	2
<i>Durangoren berri</i>	3
<i>Bisita prestatzeko bisita</i>	4
<i>Kokapena</i>	5
<i>Iparrorratza</i>	6
<i>Belen Bengoetxea Rementeria</i>	7
<i>Geu ere "aditu"</i>	7
<i>Irakurgaiak</i>	8
<i>Iragana eta oraina lantzen</i>	11
<i>Durangoko bonbardaketa</i>	12
<i>Iurretako iturria</i>	13
<i>Geure txokoa</i>	14
<i>Azken ekoizpena: eskuorria egin</i>	15
<i>Zer ikasi dut</i>	16

Lege gordailua: SS 1161-2015 • **Argitaratzailea:** Durangoko Udala eta Iametz Interaktiboa • **Koordinazioa:** Iametz Interaktiboa • **Edukien egilea:** Unai Iturriaga • **Diseinua eta maketazioa:** Garbine Ubeda Goikoetxea • **Hezkuntza aholkulariak:** Jon Akarregi, Ander Goikoetxea eta Josu Retolaza • **Argazkiak:** Unai Iturriaga, Durangoko Turismo Bulegoa (Txelu Angoitia), Durangoko Arte eta Historia museoa (Imanol Larrinaga eta Txelu Angoitia), Gerediaga Elkartea eta Anboto astekaria. • **Kolaboratzaileak:** Landako eskola, Kurutziaga ikastola, San Jose Jesuitak ikastetxea, San Antonio-Santa Rita ikastetxea, Frai Juan Zumarraga institutua, Nevers ikastetxea eta Zabalarra eskola. • **Inprimategia:** Antza, S.A.L.



MIKEL LEHENGUSUAREN GUTUNA!
HAU POZA!



KATZA, HAZI GOZPIA!
Lanabeste egun berrira. Durangora
betetuta daiteke. Hurrengoak:
gogoratu, auzo, lortzekoan izan zurekin
bizarra, ezarri piztasunak, naur
biela gibelak! (ezekulako
zortakoe maitxo brr! Haringen?)



BERTALDI EZEREA PRESTATU ZIDAN,
AI, MIKELEK, DONOSTIAKO TXOKORIK
POLITEAK ETA ISTORIOK
HARRIGARRIENAK KONTRATU
ZIDIDAN...



BADA, EZ NAIZ GUTUNASO IZANASO!
BERTALDI PRESTATUKO DIOT
ETA, GALBERRA, ESKATOKI!
BAT ESANASO DIOT NEGUARIKO
INTERESGARRIARENIN
...



...BANA..
ZER PAKIT NIK, BADA,
DUEANASO! BURUZ?

AMAAAAAAA!!!
AITAAAAAAA!!!



OSABA BITTOOORI!
LAGUNDUUUUU!!!

ZER DAKIT
NIK
DURANGORI
BURUZ?



Biztanleak

Ohiturak

Festak

Jende
ospetsua

Historia


Lana

Kirol
taldeak

IDATZIZ LANDU

- Zer leku erakutsiko zeniokete gustura Durango ezagutzen ez duen lagun bati?
- Durangoko zein lekuko historiaren berri jakitea gustatuko litzaizueke?
- Zein da zuen txokorik gustukoena Durangon?
- Zer dakizue Durangoko historiari buruz?

Jaso hemen ikasgelan agertu diren leku erakusgarri, jakinmin eta zergatiak.



Durango txikia

Sekuentzian zehar gure Durango txikia sortzen joango gara. Gaiarekin zerikusia daukan edozein material ekarri dezakezue: liburuak, argazkiak, objektuak... Seguru azken ekoizpenera bidean lagungarri gertatuko zaizkigula!

Bisita prestatzeko bisita

Arte eta Historia Museoa eta Turismo bulegoa

Bisita gidatua prestatzeko oso lagungarriak izango zaizkizuen leku bi bisitatzea gomendatzen dizuegu: Durangoko Arte eta Historia Museoa eta Durangoko Turismo bulegoa.

- Arte eta Historia museoan sekuentzia honetan ikusiko duzuen Erdi Aroko Durangoko hiribilduaren maketa bikaina dago ikusgai, besteak beste.
- Turismo bulegoan Durangori buruzko informazio interesgarria jasotzeaz gainera, eskuorri eta mapa ezberdinak hartu eta ikusteko aukera izango duzue.
- Bai Arte eta Historia Museoa eta bai Turismo bulegoa Durangoko eraikin esanguratsuetan kokatuta daude. Etxezarreta jauregian lehenengoa eta Lariz Torrean bigarrena.



Arte eta Historia Museoa.
Etxezarreta Jauregia.



Turismo bulegoa.
Lariz Torrea.


Eskuorria zelan egin

Esku orrian agertu beharreko informazioa ondorengoa izango da:

1. Durangori buruzko oinarritzko informazioa.
2. Durangoren sorrera.
3. Harresiak eta portaleak.
4. Gure Txokoa.
5. Irudiak, marrazkiak...

Sekuentzian zehar lau atalei dagokien informazioa emango da. Komenigarria da informaziorik garrantzitsuenaz azpimarratzea azken ekoizpenari ekiterakoan eskuragarri izateko.

Bide batez, eskuorria egiterakoan, informazioa antolatu eta garbi ematen ikasiko dugu. Horretarako atal bakoitza non kokatuko dugun eta zenbat leku emango diogun pentsatu beharko dugu.





Eskolan zalantzak dituen aldiro, Marik osaba Bittorri jotzen dio txirrria. Bai baitaki Osaba Bittorrek gauza askotaz asko dakiela. Hona hemen Osaba Bittorrek Mariri Durangori buruz eman dizkion zenbait datu, zuentzat ere lagungarri izango direlakoan.


Durango Bizkaiko probintzian dagoen udalerria da.

Bizkaiko barnekaldean dago eta Bilbo Handia deritzon eremuaz aparte herririk populatuena da. Gaur egun 28.986 biztanle ditu.

Durangaldea deritzon eskualdean kokatuta dago eta mugakide ditu Iurreta, Abadiño, Izurtza, Mañaria, Dima eta Amorebieta-Etxano udalerriak.

Durangoko mendirik altuenak Pagasarri (838 m) eta Neberondo (453 m) dira.

Mañaria erreka Durangoko herria gurutzatzen du bere urak Ibaizabalen isuri aurretik.



☒ zuzen ☐ oker

- 1 Durango Gipuzkoako probintzian dago. ☐
- 2 Durangaldea Durangoren ezkerreko aldea da. ☐
- 3 Durangotik igarotzen den erreka Mañaria du izena. ☐
- 4 Durangok Bilbo Handiak beste biztanle ditu. ☐
- 5 Pagasarri eta Mugarra dira Durangoko mendirik altuenak. ☐

Iparorratza



Aurreko orrialdeko bigarren irudiari erreparatu badiozue ohartuko zineten iparorratz baten irudia ageri duela. Jakingo duzuenek iparorratzak Lurraren ipar magnetikoa seinalatzen du eta ondorioz gainerako puntu kardinalak (ekialdea, hegoaldea, mendebalea) non diren jakin genezake.

KOKATU


- Begiratu berriz aurreko orrialdeko bigarren irudia eta iparorratzari erreparatuz idatzi zein herrik non egiten duen muga Durangorekin.

Iparraldean:

Ekialdean:

Hegoaldean:

Mendebaldean:



Eskuorrian sartzeko informazioari buruzko oharrak:



Belen Bengoetxea Rementeria

1966, Durango

● EHU-KO ARKEOLOGIA ALORREKO IRAKASLEA.

Belen Bengoetxea irakasle durangarra da Durangoko Erdi Aroko hiribilduaz gehien dakien pertsonetako bat. “Durango historian barrena” liburu interesgarriaren koordinatzailea, berea da Durangoren sorrerari buruzko atala. Durangoko hiribildua zenaren aztarnen bila indusketak gidatu ditu Du-

rangon bertan (Santa Anako, adibidez). Beraz, Hiribilduaren gaian aditurik badago, Belen Bengoetxea dugu bat.



Santa Anako plazan egindako indusketak. 2009. urtea.

Geu ere “aditu”

TALDEETAN LANDU


- Bi taldetan banatuta, ondoko orrialdeetan datozen bi testuak landuko dituzue. A taldeak “**Durangoko hiribilduaren sorrera**” eta B taldeak “**Harresiak eta portaleak**”. Lanketan eman beharreko pausoak: Informazio garrantzitsuena azpimarratu, oharrak jaso, argibiderik behar izanez gero eskatu eta antolatu informazio hori garrantziaren arabera.
- Ondoren, A eta B taldeetako kideak nahastu, talde bakoitzean bateko zein besteko kideak egongo direla ziurtatuz. Bi taldeetako adituen informazioarekin, eskuorriko 2. eta 3. puntuetako testuak osatu (beharrezkoa balitz, argazki, marrazki edo maparen bat gehituz).

Durango Hiribilduaren sorrera

Tabirako hiribildua

Hiribildua esaten zitzaion Erdi Aroan jauntxo edo errege batek emandako hiri-gutun baten bitartez eratutako hiri-guneari. Durango da horietariko bat. Hala ere, hiribilduak ez dira ezerezetik sortzen. Lehenagotik egon badagoen kokaleku bati ematen zaio hiri-gutuna eta Durangon bazegoen batez ere artisautzan oinarritzen zen jendez osatutako kokaleku bat. Egin diren aurkikuntzetatik ondorioztatzen da ehunak eta larruak tindatzen zituztela eta baita burdina eraldatu ere labe txikietan.

Gaur egun Durango izenez ezagutzen duguna “Villa de Tavira” edo, euskaraz esanda, “Tabirako hiribildua” izenaz sortu zen. Batzuen ustez XII. mendean errege nafar batek eta beste batzuen ustez, XIII. mendearen amaieran (1297) Gaztelako koroaren eskutik. Bata edo bestea egiaztatuko duen dokumenturik ez da iritsi gaur egunera, bai ordea 1372an Gaztelako koroak Tabirako hiribilduaren pribilegioak berresten dituen dokumentua. Hori da uneotan dagoen dokumenturik zaharrena.



Tabirako hiribilduaren pribilegioak berresten dituen agiria.

Bidegurutzea

Erdi Aroan eta baita geroago ere, Durango hirigune garrantzitsua izan zen, besteak beste, eta nagusiki, bere kokapenagatik: bidegurutze batean zegoen eta Bizkaiko kostaldea eta Gaztelako meseta lotzen zituen. Hau da, itsasotik penintsula barnealderantz eta barnealdetik portuetarantz zihoazen salgaien merkataritzarako leku ezin hobe zen. Ondorioz, merkataritza eta artisautza izan ziren hiruzpalau mendez Durango biztanleen jardura nagusiak.



Durango XV. mendean. Egilea: Imanol Larrinaga.

Durango XV. mendean.



Harresiak eta portaleak

Irudietan ikusten den moduan Durangoko hiribildua harresi batek inguratzen zuen. Mañaria errearen eskuma aldera kokatua zegoen eta ondo planifikatutako planoa zeukan. Iparraldean Andra Maria eleiza eta hegoaldean Santa Anarena. Bi hauen artean Mañaria errearen ondotik hasita, lau kale paralelo: Barrenkalea, Artekalea, Goienkalea eta Kalebarria; eta, azkenik, lau kaleok gurutzatzen dituen kantoia (gaur egungo Zeharkalea).

Harresiak sei atari edo portale zituen hiribildurako sarbide legez. Gaur egun bakarra dago zutunik, Santa Anakoa (edo Merkatukoa zeritzona Erdi Aroan) baina kontuan hartu guk ikusten duguna XVIII. mendean eraikitakoa dela, aurretik zegoen beste baten ordezkia. Sei portaleak ondorengoak ziren:

- **Zumardikoa edo San Pedroko portalea:** hiribilduaren ipar-mendebaldean zegoen, Bilborako bidearen sarreran.
- **Kurutziagako portalea edo Gurutzekoa:** berriz, Gipuzkoarako bidea zabaltzen zuen, hiribilduaren ipar-ekialdean.
- **Merkatukoa edo Santa Anakoa:** hego-mendebaldean, Gasteizerako bidea zabaltzen zuen.
- **Intxaurrondokoa edo San Martingoa:** Ipar-ekialdean, Kalebarriaren bukaeran zegoen.
- **Zabalarena:** Barrenkalean, San Agustino Zubirantz begira.
- **Pietatearena:** Kalebarrian.

Sutea

1554. urtean sute batek ia osorik kiskali zuen Durangoko hiribildua herriguneko ia etxe guztiak suntsituz. Ez zen izango hiribilduak pairatuko zuen bakarra baina bai eragin handiena izan zuena. Sute horren ondorioz ia hutsetik berreraiki behar izan zuten hiribildua baina, era berean, berrantolatze eta zenbait azpiegitura kokatzeko baliatu zen zoritxarreko gertakaria. Gaur egun udaletxea dagoen orubea, esaterako, garai hartan erosi zuen hiribilduko kontzejuak.

Portaleen eraisketa


XIX. mendearen amaieran Durangoren plano berria diseinatu zuten eta horrekin batera Santa Anakoa ez beste portale guztiak eraitsi egin zituzten.

A eta B irakurgaiak

Aurreko orrialdeetako azalpenak kontuan hartuta, jarri dagokion izena portale bakoitzari eta izendatu zenbakiz adierazita dauden kaleak.



Oharra: irudia iparretik hegora dago hegotik iparrera beharrean.
Durangoko hiribilduaren maketa hau Arte eta Historia Museoa dago ikusgai.



1

3

2

4

Eskuorrian sartzeko informazioari buruzko oharrak:





Aurreko ariketan Erdi Aroko maketan portalen izenak egoki kokatuko zenituzten. Gai izango al zinatekete portale horiek zeuden lekuak gaur zeintzuk diren ezagutzeko? Saiatu!

Lotu gezi bidez portaleen izenak eta dagozkien argazkiak.



Zabalakoa

Merkatukoa edo Santa Anakoa

Zumardikoa edo San Pedrokoa

San Martingoa edo Intxaurrendokoa

Kurutziagakoa edo Gurutzekoa

Pietatearena



Durango bonbardaketa



Urian aztarna ahaztezina utzi duen beste data bat 1937ko martxoaren 31koa da. Egun horretan italiar eta espainiar faxisten abiazioak Durango hiribildu zaharra txikitu egin zuen beste behin ere. Hirurehundik gora izan ziren hildakoak eta gehiago zaurituak. Gaur egun Durango alde zaharra deitzen dioguna izan zen bonben eraginez kaltetuena.



PENTSATU

- Bonbardaketan hildakoen omenez jarritako plaka bat badago Durangon. Badakizu non dagoen?



Durango gainean bonbak jaurti ahala hegazkin italiar batetik hartutako argazkia, 1937-3-31.

(Erromako Uffi cio Storico dello Stato Maggiore dell'Aeronautica Militare-tik Gerediaga Elkartek hartutako irudia).



Durango bonbardaketari buruzko testigantzak ahotsak.eus plataforman:
► www.ahotsak.eus/gaiak/0803/



Iurretako iturria

Durangoko udalerriak 1926. urtean Iurretakoa anexionatu edo bereganatu egin zuen harik eta 1990ean Iurretak berriro ere udalerri izaera lortu zuen arte. Anexio haren ikur gisa gaur egun Andra Mariako elizaren aurrean dagoen iturria Iurretako plazan egon zen.

Iurretako udalerri bihurtzearekin batera, iturria bere jatorrizko lekura itzuli zen.



Iturriaren
oinean dagoen
inskrizioa.

1926-XI-8an ERROK ARDUTEK
1989-XI-8an EKARRI BILTE
OTERA




Proposatu

Orain artean Durangoren historiarekin eta garapenarekin lotutako toki eta gertakariak ezagutu ditugu. Iritsi da zuen gustuko txokoa aukeratu eta proposatzeko ordua. Taldekideen artean atsegin duzuen Durangoko leku edo txoko bat aukeratu eta eskuorrian zelan aurkeztu pentsatu. Horretarako:

- Lekua aukeratzeko arrazoia idatzi.
- Lekuaren historiari buruzko informazioa lortu.
- Argazkiak egin (taldea bertan bada, hobeto) eta eskuorrian sartuko duzuen aukeratu.
- Bisita gidatuan zein puntutan sartuko duzuen pentsatu.

Idatzi hemen eskuorrian sartzeko informazioari buruzko oharak





Eskuorria egin

Sartu beharreko gai guztiak landu ditugu dagoeneko. Orain, gai bakoitzari dagokion informazioa eskuorrian non eta zelan banatu erabaki behar duzue.

Kontuan hartu

- 1 Azala lehenik, eta kontrazala gero, dira lehenengo ikusten diren atalak.
- 2 Testu laburrak eta zehatzak idatzi. Informazio garrantzitsua azpimarratu. Kontuan hartu bisita gidatuan informazio hori ahoz hornitzeko eta aberasteko aukera izango duzuela.
- 3 Letra argia eta garbia erabili eskuorrian, edozeinek irakurtzeko modukoa.

Ez ahaztu!

Egindako eskuorri guztiei fotokopia egin edo argazkiak ateratzea.



Bisita gauzatu

Behin eskuorria eginda, bisita eguna iristen denean gogoratu Durangon izan diren gidarik onenak izango zaretela. Eskolan taldean landu duzuen ikaskideen aurrean erakusteko ordua da.

Kontuan hartu

- 1 Taldekideen artean azalpenak emateko ardurak banatu.
- 2 Eskuorrian dagoena oinarritzko informazioa da. Ez irakurri han jartzen duena. Azalpenak ahoz ematerakoan aberasten saiatu. Anekdotaren bat edo pasadizo bitxi edo barregarriren bat badakizue, erabili.
- 3 Zuen azalpenetan gainerako ikaskideek arreta jar dezaten gura baduzue, zeuek ere halaxe jokatu besteenekin.
- 4 Nahi izanez gero, bisitaren amaieran eskuorriak trukatu taldeen artean.

Zer ikasi dut?



1. Zer ikasi dut?

.....

.....

2. Zelan ikasi dut?

.....

.....

3. Zer ikasi dut nire ikaskideengandik?

.....

.....

4. Emandako informazioa, materiala, egokia izan da?

.....

.....

5. Gehien gustatu zaidana

.....

.....

